

Topalekua

94 zk. 2017ko ekaina

junio 2017 - n.º 94

1. orr.: Gizarte-Kontseiluak UPV/EHU-ko 969 irakasleri (irakasle eta ikerlari) ordainsari osagarriak esleitu dizkie

2. orr.: CEOE-k «La educación importa» liburu zuria aurkeztu du UPV/EHU 14. tokian dago «El Mundo» egunkariaren unibertsitate publikoen sailkapenean

3. orr.: Eusko Jaurlaritzak «2022rako Unibertsitatea-Enpresa Euskal Estrategia» aurkeztu dio Unibertsitate-Kontseiluari Euskadi hirugarren postuan «Horizonte 2020» Esparru-programa Europarrean lortutako itzulkinetan

4. orr.: UPV/EHU laugarren postuan dago U-Ranking Volumen izeneko sailkapenean

GIZARTE-KONTSEILUAK UPV/EHU-ko 969 IRAKASLERI (IRAKASLE ETA IKERLARI) ORDAINSARI OSAGARRIAK ESLEITU DIZKIE

Maiatzaren 25ean Bilbon egindako UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkurak Unibertsitatean lanean diharduten 969 irakasleri (irakasle eta ikerlari) seigarren deialdiari dagozkion B1, B2, B3, A1 eta A2 tarteetako ordainsari osagarrien gehigarriak esleitzea onetsi zuen, Ezagutza-alorren arabera, 96 Osasungintza Zientzietako Irakasle eta Ikertzaileak dira, 188 Sozietakoak, 186 Esperimentaletakoak, 206 Teknikoetakoak, 147 Humanitateetakoak eta 146 Ekonomiko eta Juridikoetakoak.

Osagarrien esleipena, irakasle bakoitzarentzat berezia eta banan-banakoa, Gizarte Kontseiluak 2016ko uztailaren 22an VI. Deialdirako ezarritako terminoei jarraiki egin zen. Ordainsari osagarriak hiru mailatan sailkatuta daude: A maila, bikaintasuna aitortzera zuzendua; B maila, kalitatea eta etengabeko hobekuntza balioesten dituen; eta C maila, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean egindako jardun profesionala aitortzen duena.

Irakasle horien osagarrien esleipenak UPV/EHU-ko Gobernu Kontseiluaren oniritzia jaso zuen joan den maiatzaren 11n eta Unibasko Euskal Unibertsitate Sistemako Kalitatearen Agentziaren derrigorrezko ebaluazio positiboa dauka.

Ikasketa osagarriak

Kontseiluak, halaber, Ikasketa Osagarrietako zazpi ikastaroen matrikula-tasak ezarri zituen:

- «Hizkuntz Ingenieritzaren arloko aplikazioak/Advances Applications on Language Technologies». (32,45€ Kreditu bakoitzeko, 9 kreditu).
- «Seminario formativo complementario en Teoría Política». (100,00€ Kreditu bakoitzeko, 10 kreditu).
- «Desarrollo de competencias y revisión de enfoques para la enseñanza de Español Lengua Extranjera (ELE)». (67,86€ Kreditu bakoitzeko, 5,6 kreditu).
- «Focus on multilingualism: language integration in the curriculum (2. edizioa)». (100,00€ Kreditu bakoitzeko, 10 kreditu).
- «Mercado interior y unión monetaria de la Unión Europea». (20,00€ Kreditu bakoitzeko, 5 kreditu).
- «Papel del odontólogo en el diagnóstico y tratamiento de la apnea-hipoapnea del sueño». (150,00€ Kreditu bakoitzeko, 1,6 kreditu).
- «Scientific Diving». (98,4848€ Kreditu bakoitzeko, 3,3 kreditu).

Azkenik, osoko saio berean, Kontseiluak Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eskatutako aurrekontuaren hainbat aldaketa ere onetsi zituen.

CEOE-k «LA EDUCACIÓN IMPORTA» LIBURU ZURIA AURKEZTU DU

CEOE-k «La Educación Importa» liburu zuria aurkeztu du. Bertan, Espainiako hezkuntza-sistemaren oinarritzko bost defizitak aztertu ostean, soluzioa emateko hamar proposamen «gako» azaltzen ditu. Txostenak, egileek diotenez, «enpresaburuek enplegu gehiago eta hobe, hazkunde ekonomiko jasagarria eta gizarte-kohezio handiagoa lortzeko bitarteko pribilegiatu gisa hezkuntzaren alde egiten duten apustu estrategikoa» jasotzen du.

Liburu zuriak jasotzen duenaren arabera emaitzen kaskarkeriaren, gastuaren efizientzia-ezaren, prestakuntzaren eta enpleguaren arteko tartearen, erantzun politikoaren moteltasunaren eta arau-esparruen eskasien moduko faktoreak oinarri dituzten oinarritzko defizitei aurre egiteko, txostenak antzemandako defizitetako batean edo batzuetan eragingo duten 10 proposamen gako azaltzen ditu.

PROPOSAMEN GAKOEN ETA ESPAINIAKO HEZKUNTZA- ETA PRESTAKUNTZA-SISTEMAREN OINARRIZKO DEFIZITEN ARTEKO ERAGIN-HARREMAN ZUZENAK

	OINARRIZKO DEFIZITAK				
	Emaitzen kaskarkeria	Gastuaren efizientzia-eza	Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko tartea	Erantzun politikoaren moteltasuna	Arau-esparruen eskasiak
1. Aldi berri baterako curriculum berria ezartzea	✓	✓			
2. Berrikuntza, ekintzailetasuna eta teknologiak erabiltzea sustatzea	✓	✓			
3. Irakaskuntza lanbide sendoa bilakatzea	✓	✓			
4. Zentroen autonomia, gobernantza eta kontu-ematea sustatzea	✓	✓			
5. Hobekuntzarako ebaluazio-sistema eraginkorra eta efizientea definitzea	✓	✓			
6. Irakasteko askatasuna indartzea	✓	✓			
7. Hezkuntzatik enplegurako igarobidea erraztea			✓		
8. Hezkuntza eta enpresaren arteko elkarrekiko loturak eta enpresariak lanbide bat burutzeko prestakuntzaren gobernantza exekutiboan duten protagonismoa areagotzea			✓		
9. Estatu osorako oinarritzko esparru moderno eta eraginkorra bermatzea				✓	✓
10. Gure hezkuntza-sistemarako ikuspegia partekatu eta benetako norabidea bermatuko duen akordio sozial eta politikoa sustatzea				✓	✓

Lehen defizitari dagokionez, azterketak adierazten du hezkuntzako emaitzak nazioartean edo epealdi behar bezain luzeetan ematen diren joerekin alderatzen direnean eskasia adierazgarriak antzematen direla, eta horrek gure herrialdearen aurrerabide ekonomiko eta soziala moteltzen du.

Espainian hezkuntza publikoari eskaintzen zaion gastu publikoari dagokionez, BPGaren %4,2 da, EB-28 baino 1,1 puntu beherago 2013an; hala ere, %18arekin, Europako herrialdeetan hezkuntzari eskainitako guztizko gastuan gastu pribatu proportziorik handiena dutenetariko bat da.

Prestakuntzaren eta enpleguaren arteko tarteari dagokionez, liburuak kontraesaneko egoera azpimarratzen du; izan ere, langabezia-maila handia dago eta, aldi berean, lan-merkatuari interesgarri zaizkion kualifikazio eta gaitasun-eskasia dago,

unibertsitateko irakaskuntzan batez ere, eta hori orientazio profesionalaren akats baten adierazle da.

Aldi berean, enpresaburuek erantzun politikoaren moteltasuna azpimarratzen dute, baita arau-esparruaren eskasiak ere, bai itxurari dagokionez, baita ikuspegiari eta edukiari dagokionez ere. Gainera, gero eta handiagoa den presio arautzailea eta arauen eta politika publikoen helburuen arteko aldea nabarmentzen dituzte, baita konpondu nahi dituen arazoaren errealitatearekiko aldea ere.

Azkenik, CEOE-k berriro aipatzen du akordio sozial eta politikoa sustatzeko beharra, hezkuntza-sistemari egonkortasuna emateko, etorkizunerako ikuspegi egokiaz, ikuspegi ideologikorik gabe eta enpresen ikuspegia eta enpresaburuek hezkuntzarekiko duten konpromisoa aintzat hartuta.

Gradukako azterketan, Ingeniaritza Kimikoa lehen postuan da

UPV/EHU 14. TOKIAN DAGO «EL MUNDO» EGUNKARIAREN UNIBERTSITATE PUBLIKOEN SAILKAPENEAN

UPV/EHU hamalagarren tokian dago El Mundo egunkariak egindako unibertsitate publikoen sailkapenean. Azterketa horrek, urtero, goi-heziketako erakundeak hiru azterketa-alor aintzat hartuta sailkatzen ditu: erakundeek emandako datuak (unibertsitate-eskaria, giza baliabideak, baliabide fisikoak, ikasketak-plana, testuinguruko informazioa eta emaitzak), irakasleei egindako inkestak (bere titulazioa irakasten duten zentroen balorazioa, bere unibertsitateko indarguneak eta ahulguneak eta ikerketa-ildo nagusiak) eta beste zenbait sailkapen eta txostenetatik datozen adierazleak.

El Mundo-ren azken sailkapenak 44 unibertsitateri buruz eskura dagoen informazio guztia jaso eta aztertzen du; horietako 35 publikoak dira eta 9 pribatuak. Unibertsitate guztien sailkapenean, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea hamaseigarren postuan dago.

Gradukako sailkapena

El Mundo-ren txostenak unibertsitateak gradu bakoitzean lortutako emaitzen arabera ere sailkatzen ditu; sailkapen horretan UPV/EHU lehen tokian dago Ingeniaritza kimikoan, hirugarrena Arte Ederretan eta Laneko Harremanetan eta bosgarrena Ingeniaritza Mekanikoan eta Nutrizioa eta Dietetikan.

EUSKO JAURLARITZAK «2022rako UNIBERTSITATEA-ENPRESA EUSKAL ESTRATEGIA» AURKEZTU DIO UNIBERTSITATE-KONTSEILUARI

Euskadiko Unibertsitate Kontseilua ekainaren 6an bildu zen. Iñigo Urkullu lehendakaria bilerako buru aritu zen, eta 2022rako Unibertsitatea-Enpresa Euskal Estrategia aurkeztu zuten. Estrategia horren helburu nagusia «Euskadiko gizarte- eta ekonomia-garapenerako bultzatzaile bat sortzea da, euskal gizarte modernoagoa, bidezkoagoa eta jasangarriagoa eraikitzen lagunduko duen europar eta nazioarteko testuinguruan».


Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Euskal Unibertsitate Sistemako hiru unibertsitateekin eta Confedebaskekin elkarlanean, garatu du estrategia, 2017-2022 aldirako. Estrategia da Eusko Jaurlaritzak Euskal Unibertsitate Sistema sendotzeko egiten duen apustuaren jardun-ardatzetako bat.

Horretarako, bi helburu nagusi ezarri dira: batetik, ezagutza sortzea eta transferitzea eta, ezagutza bikaintasun zientifikoari eta enpresa-eremuko aplikazioari lotzea; eta, bestetik, gaitasun handiak eta enpresa-eremuaren beharrei aplikatutako eta egokitutako osagaia dituen giza kapitala sortzea. Estrategia bultzatzeko hainbat ekintza antolatu dira, eta, besteak beste, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Euskadiko Ingeniaritzako, Zientziako eta Teknologiaiko Prestakuntza Klusterra (Kluster-FICTE) abian jartzea.
- Enpresa-Unibertsitatearen ikasgelen I. euskal programa martxan jartzea, RIS3 estrategiarekin bat etorrita (espezializazio adimenduneko euskal estrategia).
- 4.0 industriari buruzko lehen E-U ikasgela martxan jartzea.
- Aipamenak zehaztea, unibertsitate-titulazioak aitortzeko, enpresekiko elkarrekin maila oinarri hartuta, Unibertsitate lankidetzan: Doktorego Industrialaren Programaren aipamena; i-dual graduko eta graduondoko titulua; gradu eta graduondo dualaren titularen aipamena; graduko tituluetarako Unibertsitate-Lanbide Heziketaren eredu integrala.
- Orientazio dualeko unibertsitate-titulazioak abian jartzea Euskal Unibertsitate Sistemari.
- Europako enpresetan prestakuntza jasotzeko eta ikasteko programa abian jartzea, i-dual aipamena duten unibertsitate-titulazioetako ikasleei zuzenduta, Confedebaskeren lankidetzarekin batera.

EUSKADI HIRUGARREN POSTUAN «HORIZONTE 2020» ESPARRU-PROGRAMA EUROPARREAN LORTUTAKO ITZULKINETAN

H2020 EMAITZAK: AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERAKO FINANTZAKETA



«Horizonte 2020» Programa Estrategiko Europarraren esparruan Espainiak lortutako itzulkinen Autonomia Erkidegoen arabera banaketari buruzko balantzean jasotako behin behineko emaitzen arabera, Euskadi hirugarren postuan dago, Katalunia eta Madril atzetik, 221 erakundek (163 enpresek) aurkeztutako 461 programa eta ikerketa-proiekturako 303 milioi euroko finantzaketarekin. UPV/EHUk 36 jardueratan parte hartzen du eta horietako 17ko buru da; itzulkinen arabera hirugarren euskal erakundea da, Tecnalia eta ITP-ren atzetik.

LEHEN AUTONOMIA ERKIDEGOAK ALOR/GAI EZBERDINETAN LORTUTAKO ITZULKINEN ARABERA H2020 (2014.2016)

Gaia / Alorra	1. tokia	2. tokia	3. tokia
Osasuna, aldaketa demografikoa eta ongizatea (SAL)	KAT	MAD	GEL
Elikadura-segurtasuna, nekazaritza, arrantza eta bioekonomia (BIO)	KAT	MAD	AND
Energia segurua, garbia eta efizientea (ENE)	MAD	EUS	KAT
Garraio adimendun, ekologiko eta integratua (TRS)	EUS	MAD	KAT
Klimaren aldeko ekintza, ingurumena eta lehengaiak (MA)	KAT	MAD	EUS
Gizarte inklusibo, berritzaile eta hausnarkorrak (SOC)	KAT	MAD	EUS
Gizarte seguruak (SEG)	MAD	KAT	EUS
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia (ICT)	MAD	KAT	EUS
Nanoteknologia, materialak, bioteknologia eta ekoizpena (NMBP)	EUS	MAD	KAT
Espazioa (ESP)	MAD	KAT	EUS
ETE-etako berrikuntza (PYM)	KAT	MAD	VAL
Europako Ikerketa Kontseilua (ERC)	KAT	MAD	AND
Etorkizuneko eta garapen bidean diren teknologia (FET)	KAT	MAD	VAL
Marie Skłodowska-Curie ekintzak (MSC)	KAT	MAD	EUS
Ikerketa-azpiegiturak (IIN)	KAT	MAD	CAN
Bikaintasuna hedatu eta parte-hartzea zabaltzea (WID)	MAD	KAT	AND
Gizartearekin eta gizartearentzako zientzia (CVS)	KAT	MAD	AND

Alor tematikoen arabera lortutako itzulkinak aintzat hartuta, Euskadi lehen postuan dago «Nanoteknologia, materialak, bioteknologia eta ekoizpenean (NMBP)», bigarrena «Energia seguru, garbi eta efizientea (ENE)» eta hirugarrena «Gizarte inklusibo, berritzaile eta hausnarkorretan (SOC)», «Gizarte seguruetan (SEG)», «Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (ICT)», «Espazioan (ESP)» eta «Marie Skłodowska-Curie ekintzetan (MSC)».

Euskadin lortutako itzulkinak Estatu osoan lortutakoen %15,66 dira; Estatu, aldi berean, laugarren postuan dago Europar Batasunaren testuinguruan, %9,8ko itzulkinarekin eta proiektuen %15,2ko buru izanik.

UPV/EHU LAUGARREN POSTUAN DAGO U-RANKING VOLUMEN IZENENKO SAILKAPENEAN

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak laugarren postua hartu du «U-Ranking Volumen» izeneko sailkapenean; zehazki, sailkapenaren 2017ko edizioa da, eta jada, bosgarrena. Goi-mailako 61 erakunde publiko eta pribatu sailkatu dira; kontuan har-

tzen da unibertsitateen emaitza guztien kopurua (irakasleena, ikerkuntzaren eta berrikuntzaren arlokoena eta teknologia-garapenena). Unibertsitatearen tamaina irizpide garrantzitsua da, erakunde bakoitzaren etekinarekin batera.

LEHENENGO 20 POSTUAK, 2017ko U-RANKING VOLUMEN IZENENKO SAILKAPENEAN

Ranking	Adierazle	UNIBERTSITATEA
1	4,2	Universidad Complutense
2	3,7	Universitat de Barcelona
3	3,2	Universitat de València
4	3,1	Euskal Herriko Unibertsitatea
4	3,1	Universitat Politècnica de València
5	3,0	Universidad de Granada
5	3,0	Universidad de Sevilla
6	2,8	Universitat Politècnica de Catalunya
7	2,7	Universitat Autònoma de Barcelona
8	2,6	Universidad Politécnica de Madrid
9	2,4	Universidad de Zaragoza
10	2,3	Universidad Autónoma de Madrid
11	2,2	Universidade de Santiago de Compostela
12	2,0	Universidad Nacional de Educación a Distancia


Ranking	Adierazle	UNIBERTSITATEA
13	1,8	Universidad de Málaga
14	1,7	Universidad de Murcia
15	1,6	Universidad Carlos III
15	1,6	Universidad de Salamanca
16	1,5	Universidad de Alicante
17	1,4	Universidad de Oviedo
18	1,3	Universidad de Valladolid
18	1,3	Universitat Pompeu Fabra
19	1,2	Universidad de Alcalá de Henares
19	1,2	Universidad de Castilla-La Mancha
19	1,2	Universidad Rey Juan Carlos
19	1,2	Universidad de Vigo
20	1,1	Universidad de Córdoba

BBVA-k eta IVIE-k egindako U-Ranking Volumen izeneko sailkapenean emaitza guztien kopuru osoa kontuan hartzen da, eta sailkapen horrek U-Ranking deituriko sailkapenaren datuak osatzen ditu. U-Ranking sailkapenean

etekinaren arabera sailkatuta daude Espainiako unibertsitateak. Irakaskuntzako erakunde asko antzeko mailan daude, etekin-adierazlea oso antzekoa delako; hortaz, UPV/EHU seigarren mailan dago, hamabost unibertsitatekin batera.

Datuak Shanghaiko sailkapeneko datuekin gurutzatzea

Ospe handiko sailkapen horren bosgarren edizioaren emaitzak erkatu dira gehien aipatzen den nazioarteko sailkapenean lortutako datuekin, hau da, Shanghaiko sailkapeneko datuekin. Shanghaiko sailkapen horretan erabiltzen diren aldagaiaetan unibertsitatearen tamainak ez du efektua zuzentzen. Konparazio horretan ikus daiteke, desadostasun batzuk egon arren -U-Ranking Volumen sailkapenean irakaskuntzako funtzioa ere kontuan hartzen baita-, sailkapen bietako datuak oso antzekoak direla. Konparazio-grafiko honetan koadro ilun batean nabarmenduta daude 2016ko Shanghaiko sailkapeneko goi postuetan dauden 500 unibertsitateak. Gainerakoak ARWU (Academic Ranking of World Universities) moldatuz antolatuta dira, eta Docampo-k (2015) egin du moldaketa:



Iturria: BBVA-IVIE fundazioa, Academic Ranking of World Universities (CWCU 2016) eta Docampo (2015).